

Leoni Lendakariarekin izketaldia

Zeruko Argia.

Raul Leoni, benezolarrak aukeratu duten lendakari berria, gizon sendo, arpegi zabal, kaska soil bat da. Itz mantzoa izan arren (Caracas'tarrek egin dituxte orretzaz makiña bat txiste) lege-gizon argia da, ta orretzaz gañera politika-langile aundia, esku garbia ta pamili gizon ona.

Ba-nekian berarekin itzegiteko denbora asko ez neukela. Ba dauzka gizon onek amaikatxo bat egin-bear orain.

– Uste al-dezu (galdetu nion) erri onek luzaroko pake bidea artu duala?

– Bai. Ta esango dizut zergatik. Batetik, bakoitzak bere iritxia esateko egokiera izan du, ta nere aukeratzea erriaren naia izan da; bestetik, nere aurka egin dutenak ere demokrata garbiak bezela artu dute erriaren erabakia, ta ba'dakigu danok demokrasi au aurrera ateratzeko alkar lagundu bear diogula. Alkar errespetatzen ikasten azi ba'gera, jendea bezela bizitzeko aurrerako pauso luzea eman degula uste det.

– Ta ejerzitoa?

– Ejerzitoa izan da, ezin ba'gorde, gure erri oietan luzaroan gauzak bere gixa erabaki dituana; bañan mundua asko aldatu da ta arma gizonak ere asko ikasi dute. Gaur ez dago erriaren laguntza gabe gobernatzerik; eta erriaren aurka, berriz, oraindik gutxiago. Gaurko egunean ez dago zigorrarekin erririk aurrera eramaterik; fabrika bat zigorrez beartutako langileekin aurrera eraman ezin dan bezela. Ez al'da ala?

– Bai, ala uste det.

Gaurko egunean erriak gizontzen ari dira, ta bere buruen jabe egiten ari dira. Begira zazu Aprika'ra, Ameriketa'n bertan, mundu zear nun nai. Ta zenbat eta aurreraren eta kultura geiago, orduan eta buru tenteago. ta ori ejerzitoak ba'daki. Ta arma gizonak berak ere erriarekin batera aldatzen ari dira.

– Ez daukazu, orduan, alde orretatik bildurrik?

– Ejerzitoa erri bateko instituzio bat da, ez dauka erriko politikan zertan zarturik. Armak, erriak berak emanak ditu; ta ori erria bera zaintzeko, ez zapaltzeko. Erriak bere tokian jartzen ikasten ba'du, ejerzitoak berak ere ikasiko du. Ta danontzat obe. Gogoratzen al'zera diktadura garaiean erriak nolako naskarekin arma gizonei begiratzen zien? Ala zan. Eta ikusten al'dezu, berriz, erriak nolako lagun bezela dauzkan orain? Ba diperentzi ori berak ere ikusten dute. Ez al'derizkiozu? Demokrazian bizitzearekin ez dute arma gizonak errespetua ta maitasuna irabazi besterik egiten.

– Ta komunistak?

– Oiek beti izango dira gure arerio. Ba'dakite eskuiko diktadura batekin danak alkar artzera beartzen gaituztela, bai, ta ori komeni zaiote, eskuiko diktadura bat gero eskerreko bat justifikatzeko. Castro nor ekarí zuan Cuba'n? Batista'k. Ori ikusten ez duana itxua dago. Erria nagusi dala, berriz, berak eskeintzen ari diran gauzak gu ari gera ematen odolik ixuri gabe ta beren diktadura gorriaren kolare lotzagarri ori gizonen

lepoetatik erantzi gabe. Ta ori ezin dute eraman. Orregatik, oraingo beren ilketa ta lapurretekin, berak ari dira bere burua akatzen.

- Ta eskuiko militar zaleak?
- Oienak ere egin du. Dirua, nola nai dirua, da bere gosea!